

Errepresentazio kolektiboen kontzeptua: gizarte multikulturalen eta plurinazionalen erronka instituzionala

Oier Imaz
Filosofian doktoregaia

Estatu gehienek izaera multikulturalak edo plurinazionalak eztabaidan jarri du estatu-nazioak identitate kolektiboa egotzi eta bizitza kolektiboa instituzionalki antolatzeko duen gaitasuna; halaber, ezintasun horren oinarri bat aurkitzen da liberalismoak banako moral askearekin hartzen duen konpromiso ontologikoan.

Jardun ezagutzailearen subjektu eta errepresentazioen ikuspegi pluralista lantzen duten proposamen epistemologikoek, aldiz, gizarte garakideetan elkarrekintzan dauden errepresentazioen aniztasuna deskribatzeko gaitasuna adierazten dute; eta, hortaz, eraikin instituzionalak oinarrian behar duen gizartearen errepresentazio arrazionala eta komuna justifikatzeko oinarri egokia.

GAKO-HITZAK: Multikulturalismoa · Errepresentazio kolektiboa · Onto-epistemologia · Instituzionalismo berria.

The multi-cultural or multi-national nature of most states casts doubt on nation states' ability to ascribe a collective identity and organize life in a society, and one of the problems in the origin of this disability is related to the ontological commitment of the liberal theory to the unfettered moral individual.

The epistemological proposals that work on a pluralistic perspective about the subject of knowledge and the concept of representation provide us an opportunity to describe the diversity of representations that coexist in contemporary societies, and therefore, an adequate basis to justify a rational and shared representation of the society that work as the basis of its institutional organization.

KEY WORDS: Multi-culturalism · Collective representations · Onto epistemology · New institutionalism.

Jasotze-data: 2010-08-13. *Onartze-data:* 2010-10-28.

1. Sarrera¹

(...) printzipio² honen arabera, badirudi ona dela (dibertigarriagoa bai, behintzat) izar, mineral, landare, animalia eta izaki indibidual mota asko ez ezik gizaki multzo mota askotarikoak izatea, betiere, jakina mota horiek guztiek besteoi bizitza ezinezko egingo ez diguten neurrian (Moulines, 2008: 95).

Liberalismoak indibiduo moral askea kokatzen du bokazio praktikoa eta normatiboa berreskuratzen duen eraikin teoriko politikoaren oinarrian (Rawls, 1970). Ekinbide kolektiboaren azalpen teorikoak, bestalde, indibiduo askeak ongizatearen gainean egindako kalkulu arrazional intentzionalera mugatzen du identitate kolektiboaren ekinbidea (Olson, 1965). Hortaz, indibiduo moral askearen gainean modulatzeko da justiziaren banaketa, eta egituratzen dira kontsentsu publikoaren ondorio diren instituzioak.

Komunitaristek, aldiz, teoria politiko liberalaren eraikin normatiboaren oinarriak ezbaian jarri dituzte, liberalismo rawlsiarren indibiduo moral askeari komunitate linguistiko eta kulturalen «kokaturiko ni-a» kontrajarriz. Ikuspegi horretatik, komunitateak zentzuzko unitate arrazionalak eta zilegiak dira eta indibiduen identitatearen eraikuntzaren parte, baina, askotariko identitateen existentziak ez du gizartea bihurtzen isolaturiko edukiontziz osatutako entitate. Banakoen arteko elkarrekintzan agertzen dira identitate kulturalen arabera eraikitako komunitateak, eta, komunitateen arteko harremanen testuinguruan definituriko helburu komunei erantzun behar diete instituzioek (Taylor, 1994).

Autore batzuek, hortaz, identitatearen errepresentazio kolektibo hauen elkarneurgaitasuna gainditzeko, komunitate guztien artean komunak diren helburuetan aurkitzen dute marko politiko normatiboaren zilegitasuna (Taylor, 1994); beste batzuek, aldiz, marko normatibo liberala oinarri hartuz, errepresentazio kolektiboari loturiko eskubideen bermea eskubide indibidualen ariketaren parte bezala ulertzen dute. Azken hauen arabera, gutxiengoei loturik sortzen diren desorekak gainditzeko dira kontsentsuaren, desberdintasunaren onarpenaren eta parte hartzeko eskubidearen bidez (Kymlicka, 1995).

Edonola ere, komunitaristen ekarpenak agerian uzten du marko politiko normatibo liberalak gizarte multikulturalen eta plurinazionalen begietan zilegitasuna galtzeko duen arriskua. Baina, finkatu gabe uzten ditu, marko liberaletik kanpo, komunitarismoak estatu multikulturalari egozten dizkion betebeharrak.

Azken batean, gizarte multikulturala ikuspegi liberaletik balizkoa da, baldin, eta bakarrik baldin, agerikoa bada marrazten den bereizketa; publikoa edota gizarte osoaren bizitza arautzen duen egitura, eta, pribatua edota norbanakoari zein komunitateari loturik harturiko konpromisoen artean. Baina, denbora igaro da konpro-

1. Eskerrak eman nahi dizkiet artikulua osatzeko prozesuan emandako laguntzarengatik Andoni Ibarrari, Francisco Letamendiari, Ekai Txapartegiri eta Iñaki Sotori; halaber, euskara zuzentzaile izan dudana Itziarri ere.

2. VIPS printzipioari egiten dio erreferentzia, hots, «Valor Intrínseco de la Pluralidad del Ser».

miso komunitarioek agertoki publikora jauzia eman zutenetik, feminismoak, esate baterako. Hortik kanpo, komunitarismoak ez du argitzen: (i) gizarteari egozten zaizkion helburu komun horien oinarriak non aurkitzen diren; (ii) hauen egika-ritzea, marko liberalaz gaindi, nola gauzatzen den (Letamendia, 2001).

Haatik, bada, egun, bide berriak marrazteko beharrari erantzuten dion proposa-mentik ere. Banakoa oinarri duen proposamen ontologikoaren, epistemologikoaren eta instituzionalaren ondoan, errepresentazio kolektiboaren (Durkheim, 1912), sozialen (Moscovici, 1979) edo irudikarien (Anderson, 1983) definizioak sortzen dituen zailtasunek bide eman diote diziplina anitzeko eztabaida garaikideari. Auto-errepresentazioen dimentsio individuala, erlazionala eta kolektiboa bereizteak agerian utzi du hiru dimentsioek duten eragina banakoak bere buruaz duen errepresentazioa osatzeko prozesuan (Chen eta Boucher eta Tapias, 2006; Turner eta Whitehead, 2008; Pentland, 2007; adibidez). Are gehiago, banakoak dituen harreman-sistema sozialen eta kulturalen testuinguruan, agente kolektibo *sozialki integratuek* erakutsi dute banakoen agregazioan agortzen ez diren jarrera proposizional intentzionalak garatzeko duten gaitasuna (Pettit, 2001); eta horrez gain, testuinguru sozial eta kulturean osaturiko kolektibitateen errepresentazioa aintzat hartzea beharrezkotzat jotzen dute hainbat autorek; mundua deskribatzeko (Calhoun, 2006; Goldman, 2009; Olive, 2000; adibidez) eta instituzionalki antolatzeko (Krauss, 2004; March eta Olsen, 2005; Miller, 2004).

a. Subjektu kolektiboaren kontzeptua problematizatu: agente kolektiboaren ekinbide intentzionalaren oinarri arrazionala

He (Rawls) appears to assume that taking the people to be a single agent is incoherent. But, strictly, he is wrong about that (...) (Pettit, 2005: 159)

Ikuspegi errepublikazaletik, teoria politikoan kokatzen den proposamen teoriko orok adierazten du banakoen eta herrien, nazioen eta estatuen arteko harremanak interpretatzeko nolabaiteko konpromiso ontologikoa (Pettit, 2005). Rawlsten konpromiso ontologikoa errefusatzeko bikoitzean gauzatzen da: alde batetik, baztertzen du gizartea bateraturiko entitatetzat kontsideratu eta ikuspegi arrazionala eta orojakilea duen agente idealaren gidaritzapean aurkezten duen nozio utilitarista; beste alde batetik, libertarismoaren karira aurkezturiko banakoen agregazio hutsaren oin hartzen duen gizartearen deskribapena errefusatzeko du. Esan daiteke, beraz, utilitarismoa baztertzean gizartearen deskribapen idealtik garaiko gizarte demokratikoen deskribapenera jauzia ematen duela. Esan daiteke ere, justiziaren printzipioaren aldarrikapena aurkezten duela banako isolatuen agregazio hutsaren pare jartzen duen gizartearen deskribapena baztertzeke. Gizartea ez da unitate arrazionala, baina, ez da banako bakartuen agregazio hutsa ere.

Balizko kontraesan horri aurre egiteko funtzioa du justizia distributiboaren proposamenak. Justiziaren distribuzioak agregatuak gizareratzen ditu. Izan ere, utilitarismoaren agente idealaren ezintasun ontologikoari kontrajartzen dizkio, banakoak oin hartuz, kooperatiboa den arriskuen kontzientzia eta kolektiboa den onuraren bilaketa. Banakoa da justiziaren printzipioaren hartzailea, baina, gizartea da hura gauzatzeko eremua. Hor kokatzen du Pettitek Rawlsek banakoarekin hartzen duen konpromiso ontologikoaren muga eta bere proposamena garatzeko

lurzorua. Rawlsek banako askeak ditu oinarri, baina, onartzen du justiziaren printzipioak gizarteratzen dituela. Mundu mailako harremanetan, are argiago, justizia ez da adierazten balioen sistema unibertsal eta banakoen arteko harremanetan, herrien arteko harremanetan baizik: «The law applies to how peoples treat each others as peoples» (Pettit, 2005: 172).

Rawlsen eskutik jasotzen duen liberalismoaren interpretazio horretan oin hartzten du Pettitek (Rawls, 1993) ekimen kolektiboaren ekarpena oinarritzeko. Komunitateak, agente kolektiboak Pettiten hitzetan, agregazio hutsa gainditzen duten jarrera proposionalak dituzten subjektuak dira (Pettit, 2003). Bere arrazoiketarekin jarraituz, sistema bat intenzionala kontsideratuko da, unitate arrazional bat osatzen badu. Unitate horrek, arrazionaltasun-eredu bati erantzunez, denboran egonkorrak diren disposizio intenzionalak mantendu eta garatu, egin eta desegin behar ditu; esaterako, bere baitan ematen diren irrazionaltasunak identifikatu eta konpontzeko gaitasuna adierazi behar du. Agente kolektibo ezberdinek, *sozialki integratuak* edo *integraturiko kolektiboak* Pettiten hitzetan, deskribaturiko baldintzak asetzen dituzte. Horrek ez du esan nahi unitate kolektiboa hura osatzen duten indibiduen existentziarekiko independentea denik —ontologikoki emergentea denik—, baina, bere jarduna ez da agortzen hura osatzen duten indibiduen baturan.

Horiek horrela, agente kolektibo arrazional intenzionalek zuzenean parte hartzen dute proposamen errepublikazalean. Ekinbide kolektiboaren errealitatea ez du estatura mugatzen. Azken batean, ekimen kolektiboaren subjektuek paper aktiboa dute errepublikaren eraikuntzan, estatuak bezala, sindikatuek, mugimendu sozialek, giza eskubideen aldeko sareek, etab., eta testuinguru kultural bati loturiko komunitateek (Pettit, 1996) parte hartzen dute. Haien garapen osorako aukerak, edo beste modu batera esanda, inoren interferentzia arbitrarioaren esku ez egoiteak, agente kolektibo hauen konpromiso instituzionala oinarritzen duela argudiatuko du Pettitek. Agenteen unitate kolektibo horiek, banakoak agregatzea baino gehiago, adierazten dute beren burua eraikin sozialean integratzeko ahalmena. Eta horrek ideal errepublikazalearen eraikin instituzionala aberasten du (Pettit, 1996/1997).

Laburbilduz, komunitarismoak hurrengo arazoak erakutsi ditu: (i) komunitateen artean komunak ziren helburuak oinarritzeko arazoak; eta (ii) gizarte multikulturalak estatuari eskatzen dizkion baldintzak adierazteko arazoak (Letamendia, 2001; Calhoun, 2007; Requejo, 2008). Proposamen errepublikazaleak, aldiz, agente kolektiboak banakoen pare agente arrazional kontsideratzen ditu: (i) komunitate anitzei komunak zaizkien helburuen definizioa proiektu errepublikazalearen oinarrian kokatzen du, eta, (ii) banako, komunitate eta estatuaren arteko harremanak marko unitario baten baitan integratzen ditu. Errepublikaazalearen definizio horren arabera, bizitza kolektiboaren adierazpen errepresentatzaile askotarikoak tresna eraginkorrak dira, errepublikak instituzionalki antolatzeko asmoa duen gizarte zibila prozedura konstituzionalean integratzeko.

Puntu honetan, nazio-aniztasunari eta multikulturalismoari loturiko auziak bereiztea beharrezkoa da (Letamendia, 2001, Requejo, 2008, Calhoun, 2007). Multikulturalismoaren auzian, aurretik esan bezala, kontsentsua, desberdintasu-

naren onarpena eta parte hartzeko eskubideari loturik marrazten da konponbidea. Horretarako banakoan oin hartu, komunitateak formalki onartu edo agente kolektiboak subjektu arrazional kontsideratzeak arazoa konpontzeko instrumental aberatsa adierazten du. Hala eta guztiz ere, kontsideratzen da, estatu-nazioa multikulturala bada ere, *politikoki* homogenea den komunitatearen edukiontzia dela.

Baina, gizarte plurinazionalen auzian, aldiz, talde nazionalen ezaugarritzeak erakusten du: (i) talde nazional hauen definizioan epe luzeko faktoreek —historia eta kultura— eragina dutela; eta (ii) haien ekimen kolektibo errepresentatzaileak autogobernurako eskariak integratzen dituela (Requejo, 2008).

b. Nazio zibikoaren kontzeptua: multikulturalismoaren ikuspegi kosmopolitaren kontraesanak agerian

Identitate kolektiboen auziari loturiko proposamen indartsuena nazionalismoaren teoriak eskaintzen digu. Nazio kontzeptua eztabaida ugariren iturria da, eta, egun, teoria politikoaren eremuan, definizio argirik erakusten ez duen kontzeptua da. Honen atzean, nazio, estatu eta etnia kontzeptuen artean egin izan den identifikazioaren eta eremu honetan aurkezturiko edozein proposamenek mugitzen dituen interes politikoaren arteko nahasketa dago (Calhoun, 2006).

Auziaren gaineko polemikari begiratzen badiogu, aldiz, nazionalismoaren eta nazio kontzeptuaren inguruan jarrera ezberdinak identifika ditzakegu. Badira, positibismo juridikoan oin hartuz, nazioen existentzia bera ukatzen dutenak (Kelsen); badira, nazio eta etnia kontzeptuen arteko lotura ukatuz, nazionalismoa fenomeno moderno bezala ulertu eta haren aldarrikapenaren esentzialismoa kritikatzeko dutenak (Gellner, Hobsbawm, adibidez); nazioen existentzia betierekotzat duten autoreak (Geertz, Van der Berghe, adibidez); eta, azkenik, badira ere, besteak beste, nazioa etniari lotu bai, baina nazio kontzeptua etnia kontzeptuaren adiera modernotzat ulertuz, irekitzen diren posibilitateak ikusarazten dituztenak (Smith, Calhoun, adibidez)³.

Edozein modutan ere, kontzeptuaren inguruko polemikak agerian uzten du egungo teoria politikoan gaiak duen garrantzia. Eta ikerketa-proiektu honi dagokionez, errepresentazio kolektiboen karakterizazioan eta nazio-aniztasunari loturiko auzi konkretuan aurrera egiteko bide teorikoak eskaintzen ditu.

Aurrerago ere esan dugu globalizazioaren aroan agertzen ari den *demosaren* deszentralizazioak ezbaian jartzen duela estatuak gizartea errerepresentatu eta instituzionalki antolatzeko duen gaitasuna. Aldi berean, esan dugu, ezintasun horrek lotura duela liberalismoaren metodologia indibidualistak gizarte garaikideetan elkarbizitzen duten errepresentazio kolektiboen tipologia aberatsa ulertzeko, eta adierazteko duen ezintasun epistemologikoarekin. Zentzu horretan, nazio kontzeptuak gizartean sortzen diren elkartasun-harremanak aztertzeko kategoriak ematen ditu, eta, globalizazioari loturiko indibidualismo liberal eta, beste maila batean, kosmopolitaren ezintasunei aurre egiteko ikerketa-eremuak zabaltzen egiten ditu. Nazionalismo zibikoak historia eta kultura komun bati loturiko herentziak aldarrikatu eta biltzen dituen edukiontzi estatikoa aldarrikatzea baino gehiago,

3. Saillapenaren gaineko informazioa osatzeko ikusi Moulines, 2008: 7-34.

defendatzen du gizartean antolatzen diren aktore kolektiboek adierazten dutela beren burua deskribatzeko eta eremu publikoan adierazteko saialdia (Calhoun, 2006).

Teoria politiko nazionalistaren ikuspegi zibikoak komunitate politikoa askotarikoa den errealitatea kontsideratzen du, eta, puntu honetan, multikulturalismoak komunitateaz aurkezten duen nozioari kontrajartzen zaio. Multikulturalismoak komunitateak aurkezten ditu banako desberdinek haiekiko aurrekoak diren antzekotasun kultural edo bestelakoetan oin hartzen duten komunitateak bezala. Ez du desberdintasunik egiten kultura edo historia komun bati erreferentzia eginez, generoari erreferentzia eginez, edo klaseari erreferentzia eginez, gauzatzen diren harremanen artean; baina, edonola ere, barne-berdintasuna eta besteekiko diferentzia nabarmentzen dituzten komunitateak direla defendatzen du.

Nazioak, aldiz, multzo heterogeneo hori modu bateratuan adierazteko kategoriak osatzen dituzten kontzeptuak dira. Agente kolektiboak edo komunitatearen objektibazioak —nazioak— komunitate horrek diskurtso publikoan integratzeko duen beharrezkotasunari erantzuten dio. Eta zentzu horretan, nazioak bere barne-aniztasuna integratzeko gaitasuna adierazten du.

Nazionalismoak, nazioa diskurtso publikoari loturiko kategoria kontsideratuz, ikuspegi etnizista gainditu, eta, eskala handiko agente kolektibo hau modernitatearen diskurtsoan kokatzen duen narrazioarekin lotzen du. Modu horretan, identitateen ikuspegi kategorikoa eta *imagined communities* (Anderson, 1983) kontzeptuak kontrajarriz, identitatearen ikuspegi kategorikoa estatuei loturiko nazionalismoarekin, hots, nazio kontzeptuaren asimilazio instituzional errepresiboarekin, lotzen du (Calhoun, 2006).

Nazionalismoa, definizioarekin jarraituz, modernitateak indibidualismoarekin duen loturaren produktu kontsideratzen da. Indibiduazio-prozesuak banakoaren erabaki-gaitasuna eramaten du lehen planora, eta erabaki-gaitasun horri lotzen zaio nazionalismoaren emergentzia. Nazioak, banakoak eta marko globalaren arteko elkarrekintzak mediatzeko eredu unibertsalista abstraktuaren aurrean, gizartearen elkarrekintzan oin hartzen duten bitartekari eraginkorrak kontsideratzen dira.

Zentzu horretan, nazio kontzeptua gizarte zibilaren definizioari loturik agertzen da: gizarte zibila komunitate politikoen estatu-egituraz harago, autoantolatze gaitasuna deskribatzeko kategoria kontsideratuz gero, nazionalismoa gizarte zibilaren dimentsio publikoa aldarrikatu eta hura bideratzeko tresnak adierazten dituen proposamena da. Hortaz, ez da soilik emaniko banaketa historiko eta kulturalaren arabera mundua deskribatzeko kategoria hutsa; gizarte zibilaren ekarpena plano publikora ekartzeko mekanismoak adierazten dituen proposamena da, hots, gaitasun normatiboa duen proposamena da.

Laburbilduz, nazionalismoaren gaineko ikuspegi honen arabera: (i) nazioek jatorri etnikoa dute baina haien esanahia ez da jasotako herentzian agortzen; (ii) teoria eta praktika nazionalistaren bitartez nazioak diskurtso publikoan egikaritzen diren errepresentazio kolektiboen aspirazio politikoak gauzatu nahi dituzten entitateak dira; (ii) bere barne-aniztasuna osatzen duten banako eta kolektiboen

erabaki-gaitasunaren bidez integratzeko gaitasuna adierazten dute; eta (iii) diskurtso globalean banakoaren eta unibertsalaren arteko distantziaren ondorio den indefinizioaren aurrean, bitartekari-funtzioak modu eraginkorrean betetzeko gaitasuna erakusten dute (Calhoun, 2006).

Hala ere, nabarmena da nazio-entitate zilegiak identifikatzeko dugun instrumental teorikoa aberasteko beharra dagoela. Soilik, eta gehienetan, botere errepresiboak determinatzen du zein diren nazio-identitate egiazkoak:

Too often it is only forcible repression which makes us sure we see a true national identity. We lack a theory of composition of social selves which will give descriptive foundation to the prescriptive notion of self determination. We are poorly prepared to talk about national identity or nationalism (Calhoun, 2006: 75).

c. Agente kolektiboak ezagutzeko ezagutza birdefinitzen: epistemologia sozialaren ekarpen teorikoa

Epistemologia soziala ezagutza eta informazioaren dimentsio sozialari erreparatzen dion ikuspegi epistemologikoa da. Jatorri historiko askotarikoa adierazten duen diziplina bada ere, gaztea da oraindik, eta haren definizioa terminoaren lehen agerpenean koka dezakegu. Sherak epistemologia sozialaz egiten duen definizioa harira dator:

Is the study of knowledge in society...the focus of this discipline should be upon production, flow and integration and consumption of all forms of communicated thought throughout the entire social fabric (Shera, 1970: 86).

Egia sozialaren oinarriak, baina, atzeragotik datozela pentsa dezakegu. Enpiristek (Locke, Hume, adibidez) agente ezagutzaileen gaineko konfiantzaren oinarriak eztabaidan jarriz, edo subjektu ezagutzaileen autoaskitasunaren aldeko jarrera hartuz, egia helburu duen jardun ezagutzailearen bermeen gaineko eztabaida ireki zuten. Marxistek edo estrukturalistek (Marx, Foucault, adibidez) ezagutzaren kudeaketa ideologiari lotuz, gizartean komunak diren interes eta sinesmenen egiazkotasuna gizartearen baldintza sozial eta politikoei lotuz, edo zuzenean botere eta dominazioaren zerbitzura interpretatuz, egia helburu duen ezagutzaren bilaketan baldintza sozial eta politikoei duten eragina dimentsionatu zuten.

Egun, epistemologia sozialean, bi bide nagusi nabarmentzen dira⁴: ikuspuntu klasikoak egiaren, justifikazioaren eta arrazionaltasunaren kontzeptuei loturik aurkezten digu epistemologia sozialaren ekarpena (Goldman, 1978, 1986, 1987; Kitcher, 1990, 1993; Anderson, 1995; Schmidt, 1994; Fricker, 1998; Craig, 1990)⁵. Ekarpenez-klasikoak, aldiz, egiaren nozioa baztertu eta testuinguru gabeko ezagutzan edo arau arrazional kulturalki unibertsalen ezintasunean oin hartzen du, eta, epistemologia soziala kultura konkretuen arrazionaltasun-arauak aztertzeke

4. Jarraian aurkezten den autoreen zerrendaren gaineko informazioa eskuratzeko ikusi iii eta iv oharretako erreferentziak eta Goldman, 2006.

5. Korrante honi loturiko autoreak aurkitzeko: *Episteme: A Journal of Social Epistemology*, Alvin Goldmanek zuzenduriko aldizkaria dago.

eta identifikatzeko saialdian kokatzen du (Barnes-Bloor, 1982; Latour, 1987; Latour/Woolgar, 1979/1986; Fuller, 1987, 1988, 1999; Longino, 1990, 2002)⁶.

Ikuspegi klasikoan, epistemologia sozialari dagokion funtzioa plano deskriptibo eta baloratiboan agortzen da. Epistemologiaren jardunak bi norabide aurkitzen ditu egiaren bilaketan: lehenak, ikuspegi indibiduallean du oinarri; bigarrenak, aldiz, sozialean. Epistemologia sozial klasikoak egiazko usteen sortze-prozeduren metodo eta praktikak ditu aztergai: aspektu indibiduallean, ezagutzaren subjektuaren baldintza psikologikoei erreparatzen die, horiek deskubrimenduaren testuinguru definititzen baitute; dimentsio sozialari dagokionez, ordea, agente ezberdinen elkarrekintzari erreparatzen dio, justifikazioaren testuinguruaren dimentsio soziala adieraziz, esaterako, praktika instituzionalaren azterketa (Goldman, 1999/2009b).

Proposamenak ezagutzaren dimentsio soziala banakoaren jardun ezagutzai-learen menpe kokatzen du; nahiz eta prozesuaren dimentsio soziala onartzen duen. Klasikoa da ezagutzaren subjektu indibidualaren gaitasunean oin hartzen duelako eta egia helburu duelako. Baina proposamen epistemologiko klasikoa gainditzen du, ezagutza-prozesuan faktore sozialek duten eragina aintzat hartu eta aztertzen dituelako.

Harago doa, hala ere, epistemologia sozialaren ikuspegi ez-klasikoa. Ez dago testuinguruaz aske definitu daitekeen arrazionaltasun-irizpiderik, hortaz, ezagutzaren azterketak egia/faltsua eta justifikatua/justifikazio gabea dikotomietatik harago, sinesmen eta usteen instituzionalizazio-prozeduren azterketan aurkitzen du bere interesa (Barnes-Bloor, 1982). Baina ez badago irizpide objektiborik, nondik eratoritzen dute proposamen ez-klasikoek proposamen klasikoek ukatzen zaien zilegitasunaren iturria?

Erreflexibitatearen arazoa errekurtsiboa da epistemologia sozial ez-klasikoari loturiko proposamenei begiratzen badiegu. Konponbidea ezagutzaren ezaugarritze sozialean sakonduz eskuratzen dute: ez dago egonkortze sozialaren aurretiko errealitaterik, ezta, hortaz, irizpide epistemologiko absoluturik ere. Ezagutza sortzeko prozedurak kooperatiboak dira eta ez dira gizartearen definiziotik kanpo geratzen, haren garapenean baino ezin dira ulertu, eta epistemologiaren interes-eremua uste eta sinesmen horien egonkortze-prozedura kolektiboan azterketara bideratu behar da (Thagard, 1997). Hiru ezaugarri nabarmentzen dira, hortaz: (i) ez dago oinarri absoluturik zerk zer justifikatzen duen baieztatzeko; (ii) judizio epistemikoen harremanen forma hartzen dute: a-k b justifikatzen du C eredu epistemologikoarekiko; eta (iii) askotariko sistema epistemologikoak daude, eta ez dago baten egokitasuna besteren gainetik baieztatzerik (Boghossian, 2006).

Gizartea banako eta kolektibo anitzen elkarrekintzaren produktua bada, ezagutza elkarrekintza horren baitan sortzen diren harreman sozio-epistemikoetan egikaritzen den fenomeno da. Horrela, ikuspegi indibidualistaz harago, entitate kolektiboak usteen eta sinesmenen sistema arrazional eta zilegiak eraikitzeko gai badira, agerian geratzen da epistemologikoki aintzat hartzekoak direla. Baina ez soilik ikuspegi deskriptibotik, epistemologia sozialak ezagutza sortu eta kudeatzeko

6. Korrante honetako autore ugari aurki daitezke Steve Fullerek sorturiko *Social Epistemology: A Journal of Knowledge, Culture and Policy* aldizkarian.

mekanismoak aztertzeaz gain, ezagutzaren sortze eta kudeaketa instituzionale-rako desiragarriak diren mekanismoak proposatzeko oinarriak eskaintzen ditu, eta, beste batzuen artean, baina bereziki, erlatibismoaren arriskua baztertzeke inperatibo normatiboa berreskuratzen du (Fuller, 1988).

Laburbilduz, epistemologia sozialak, hortaz, hurrengo adierazten digu: (i) ikuspegi deskriptibotik, errepresentazioen pluraltasuna aintzat hartu eta bokazio normatiboa berreskuratzen du; (ii) ezagutzaren ezaugarri *a priori* eta abstraktuak aintzat hartu baino gehiago, elementu enpirikoak integratzearen garrantzia nabarmentzen du; (iii) indibidualismo metodologikoa gainditu eta errealtate sozialean eta kulturean integratzen du bere jarduna; eta, azkenik, (iv) ezagutzaren definizio kartesiarra gaindituz, komunitate/gizarte bati loturiko uste eta sinesmen justifikatu eta egiatzkoen baitan kokatzen du ikerketa epistemologikoaren eremua.

Hortik aurrera, zirriborraturik aurkeztu dugun proposamen epistemologikoak ezagutza zientifikoaren antolaketa-eredu ideala ere proposatzen du: ezagutza sortzeko prozeduren antolaketa instituzionalak Pettit-en eredu errepublikazaleari jarraitu behar dio (Fuller, 2002). Hainbat autoreren aburuz (Olive, 2000, adibidez), eredu horrek eskaintzen du ezagutza zientifikoaren eremuan multikulturalitatearen zein nazio-aniztasunaren auziari loturiko arazoak gainditzeko instrumental teoriko egokiena.

Ondorioak

Artikulu honetan, honako hau izan da nire helburua: liberalismoaren eskema teorikotik abiatuz, multikulturalismoari eta nazio-aniztasunari loturik agertzen diren arazo epistemologikoak eta instituzionalak konpontzeko errepresentazio kolektiboen kontzeptua aintzat hartzeak eskaintzen dituen hainbat irtenbide aztertzea.

Proposamen liberal demokratikoak banakoarekiko erakusten duen konpromiso ontologikoak agerian utzi ditu teoria liberal klasikoak dituen zailtasunak: (i) kultura eta nazio anitzeko gizarteetan ematen den jardun errepresentatzaileen pluraltasuna deskribatzeko; eta (ii) gizarte garaikideak instituzionalki antolatzeko. Unitate kolektiboetan ematen den jardun errepresentatzailearen unitate ontiko existente bakarra banakoa bada, jardun ezagutzailearen subjektua (banakoa) idealki *disengaged*⁷ (aske) agertzen da, haren ikuspegi puntuala indartzen da eta gizartearen definizio atomista nagusitzen da (Taylor, 1997).

Proposamen liberalaren aurrean, komunitaristak, indibiduo moral askeari komunitate linguistiko eta kulturean «kokaturiko ni-a» kontrajarriz, ezbaian jarri ditu teoria politiko liberalaren eraikin normatiboaren oinarriak. Komunitateak zentzuzko unitate arrazionalak eta zilegiak dira, eta indibiduen identitatearen eraikuntzaren parte. Baina, komunitarismoaren atzean dagoen ikuspegi kulturallistak zailtasunak erakusten ditu: (i) gizarteari egotzen zaizkion helburu komun horien oinarriak non aurkitzen diren zehazteko; eta (ii) horien egikaritze instituzional normatiboa, marko liberaletik kanpo, nola gauzatzen den adierazterako (Letamendia, 2001).

7. Kontzeptuaren erreferentzia aurkitzeko Taylor, 1997: 19.

Proposamen errepublikazalearen eta nazionalismo zibikoaren eskutik, aldiz, datorrenekoa ikusi dugu, nazioarteko harremanen testuinguruan, liberalismoak berak beharrezkoa du munduaren deskribapena osatzeko *peoples* unitate kolektiboa kontsideratzea (Rawls, 1993); halaber, errepresentazio kolektiboen kontzeptua arrazionala da eta ikuspegi politikotik sortzailea izan daiteke (Pettit, 1997); ikerketa kulturaleri loturiko erlatibismoaren arriskuak gainditzeko bitarteko egokia izan daiteke, egitura instituzionalen zilegitasuna funtsatzeko baliagarria baita (March eta Olsen, 2005; Kimlycka, 2004); eta, nork bere buruaz duen irudi narratiboa eta besteekin osatzen duen irudi kolektiboa ulertzeko bitartekari moduan tresna eraginkorra da. Baina, proposamen instituzional normatiboa oinarritzeko agerian geratu da, gizarte-unitate kolektiboen (*Social selves*) osaketa deskribatzeko gaitasuna duen proposamen teoriko baten beharra (Calhoun, 2006).

Hemen kokatzen da «errepresentazio kolektibo» kontzeptua aintzat hartuko duen proposamen onto-epistemologikoa funtsatzeko saialdiaren pertinentzia. Jardun ezagutzailearen subjektuen eta errepresentazioen ikuspegi askotarikoak barnebiltzen dituzten proposamen epistemologikoei (Goldman, 2009; Ibarra, 2009; Olive, 2009) erreferentzia metodologiko interesgarria adierazten dute norabide honetan. Unitate kolektibo/banako aske eta errepresentazio kolektibo/indibidualismo metodologiko bikoteen arteko dikotomia gaindituz, proposamen epistemologiko hauetatik eratortzen dugun instrumental teorikoak saialdi interesgarri bat adierazten du: (i) gizarte plurinazionala eta multikulturala elkarrekin-tzan dauden errepresentazioen pluraltasuna deskribatzeko; eta, ondorioz, (ii) eraikin instituzional normatiboak oinarrian behar duen gizartearen errepresentazio arrazionala eta komuna justifikatzeko.

Bibliografia

- Anderson, B. (1991): *Imagined communities: reflections on the origin and spread of nationalism*, Verso, Londres.
- Banting, K. eta Kimlycka, W. (2004): "Do multiculturalism policies erode the welfare state?", in P. Van Parijs (arg.), *Cultural diversity versus economic solidarity*, Francqui Price conference – University foundation, Brusela, 227-285.
- Barcena, I.; Letamendia, F. eta Zubiaga, M. (2009): "Pluralismo y democracia participativa en un mundo global", *II Congreso Internacional de Filosofía, Derecho, Economía, Psicología y Educación en un mundo global*, Universidad nacional de San Antonio Abad del Cusco, Perú.
- Boghossian, P. (2006): *Fear of Knowledge*, Clarendon Press, Oxford.
- Broncano, F. (1999): "Epistemología social y consenso en la ciencia", *Crítica: Revista Hispanoamericana de Filosofía*, 31. bol., 92. zk., 3-36.
- Calhoun, C. (2006): *Nations Matter: Culture, History and the cosmopolitan dream*, Routledge, New York.
- Chen, S; Boucher, H.C. eta Tapias, M.P. (2006): "The Relational Self Revealed: Integrative Conceptualization and Implications for Interpersonal Life", *Psychological Bulletin* 2006, 132 bol., 2. zk., 151-179.
- Durkehim, E. (1995): *The elementary forms of religious life*, Free press, New York.
- Fuller, S. (1988): *Social epistemology*, Indiana University press, Bloomington.
- Goldman, A. I. (1999): *Knowledge in a social world*, Oxford University Press, Oxford.

- , (2006): “Social Epistemology”, in Edward N. Zalta (arg.), *The Stanford Encyclopedia of Philosophy (Summer 2010 Edition)*. Iturria (2010-07-27): <<http://plato.stanford.edu/archives/sum2010/entries/epistemology-social/>>.
- , (2009)a: “Why Social Epistemology is Real Epistemology,” in D. Pritchard, A. Haddock, and A. Millar, (arg.), *Social Epistemology*, Oxford University Press, Oxford.
- , (2009)b: “Internalism, Externalism, and the Architecture of Justification,” *Journal of Philosophy*, **106**, 1-30.
- Ibarra, A. (2009): “Redes epistémicas: nuevos sujetos de la ciencia en nuevos modos de acción cognitiva” in F. Broncano (arg.), *La ciencia y sus sujetos*, S. XXI editores, México, 135-158.
- Krauss, P. A. (2004): “Between Mill and Hallerstein. Cultural diversity as a challenge to European Integration”, in P. Van Parijs (arg.), *Cultural diversity versus economic solidarity*, Francqui Price conference – University foundation, Brusela, 299-315.
- Kymlicka, W. (1995): *Multicultural citizenship. A liberal theory of minority rights*, Oxford University press, Oxford.
- Letamendia, F. (2001): *Ciencia política alternativa*, Fundamentos, Madrid.
- March, J. eta Olsen J., (1989): *Rediscovering institutions. The organizational basis of politics*, The Free Press, New York.
- eta —————, (2005): “Elaborating the “New Institutionalism””, *Arena: working paper series*, **11**, 1-28.
- Miller, D. (2004): “Social justice in multicultural societies”, in P. Van Parijs (arg.), *Cultural diversity versus economic solidarity*, Francqui Price conference – University foundation, Brusela, 13-33.
- Moscovici S. (1979): *El psicoanálisis, su imagen y su público*, Huemul, Buenos Aires.
- Moulines, U. (2008): *Manifestu nazionalista eta are separatista estutuz gero*, Txalaparta, Tafalla.
- Olivé, L. (2000): “La epistemología a la vuelta del siglo XXI”, *Endoxa: series filosóficas*, **12**, 581-605.
- , (2009): “Los sujetos en las ciencias. Estado de la cuestión y prospectiva en iberoamérica”, in F. Broncano (arg.), *La ciencia y sus sujetos*, S. XXI editores, México, 201-223.
- Olson, M. (1965): *The logic of collective action: public goods and the theory groups*, Harvard University Press, Cambridge.
- Pentland, A. (2007): “On the Collective Nature of Human Intelligence”, *Adaptive Behavior*, **15(2)**, 189-198.
- Pettit, P. (1996): “Freedom as antipower”, *Ethics*, 106 bol., 3. zk., 576-604.
- , (1997): *Republicanism: una teoría sobre la libertad y el gobierno*, Paidós, Barcelona.
- , (2001): “Collective intentions”, in N. Naffine, R. Owens eta J. Williams (arg.), *Intention in law and philosophy*, University of Adelaide, Australia, 241-254.
- , (2003): “Groups with Minds of Their Own,” in F. Schmitt (arg.), *Socializing Metaphysics: The nature of social reality*, Rowman and Littlefield publisher, Oxford, 167-193.
- , (2005): “Rawls’s political ontology”, *Politics, Philosophy and Economics*, 4. bol., 2. zk., 157-174.
- Rawls, J. (1970): *A theory of justice*, Oxford University Press, Oxford.
- , (1993): “The law of peoples”, *Critical Inquiry*, **20**, 36-68.
- Requejo, F. (2008): “Democracias plurinacionales y modelos federales. El modelo de federalismo plurinacional”, in F. Letamendia (arg.), *Democracia, ciudadanía y territorialidad*, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Bilbo, 13-42.

- Taylor, C. (1994): *Multiculturalismo y la "política del reconocimiento"*, Fondo de Cultura Económica, México.
- , (1997): *Argumentos filosóficos: ensayos sobre el conocimiento, el lenguaje y la modernidad*, Paidós, Bartzelona.
- Thagard, P. (1997), "Collaborative Knowledge", *Noûs*, 31. bol., 2. zk., 242-261.
- Turner, R. eta Whitehead, C. (2008): "How Collective Representation can Change the Structure of the Brain", *Journal of Consciousness Studies* 15, **10-11**, 43-57.

